



Bertsozale Elkartearen Berripapera

	ESPAÑA
	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.com

2015eko MARTXOA - 16z. zenbakia

Arabako eta Nafarroako txapelketetako finalak jokatu dira hilaren 21ean eta 28an

Bi hitzordu garrantzitsu ditugu bertsozaleok martxoan, Arabako eta Nafarroako txapelketak amaierara ailegatuko baitira. Martxoaren 21ean jokatu da Arabako Bertsolari Txapelketako finala, Gasteizko Principal antzokian; eta astebete beranduago, hilaren 28an, Nafarroakoa, Elizondoko pilotalekuan.



Martxoaren 21ean jokatu da Arabako finala.

Urtarrilaren 25ean abiatu zen aurtengo Arabako Bertsolari Txapelketa eta martxoaren 21ean amaitu da. Egun horretan, sailkatzea lortu duten sei bertsolariek Gasteizen jokatu da finala. 17:30ean hasiko da saioa, Principal antzokian.

Adi egon finalerako sarrerak erosteko moduari, oraingo honetan antzokiak duen bideetatik erosi beharko baitira. Hiru modu daude horretarako: leihatilan bertan, telefonoz edo internetez. Azken aukera honetarako Principal antzokian duen webgunea erabili behar da: www.principalantzokia.org.

Sarrera guztiak zenbakituta dira eta bazkideek aretora sartzeko momentuan erakutsi beharko duzue bazkide txartela. Nolanahi ere, finalerako sarrerak erosteko

moduaren inguruko azalpen zehatza Arabako Bertsolari Txapelketak www.bertsozale.eus webgunearen barruan duen atalean aurkituko duzue, "Sarrerak" sailaren barruan.

Horrez gain, beste nobedade bat du aurtengo finalak. Izan ere, saioaren ondoren lehenengo aldiz afaria egingo da. Afarirako txartelak salgai daude www.bertsosarrerak.eus webgunean.

Karmele Madinabeitia Barriok jarriko dio aurtengo irabazleari txapela. Araba osoan bertsolaritzaren sustatzailea izan da, baita Gasteizko bertso-eskolarena ere. Gainera, Arabako Bertsozale Elkarteak diruzaina izandakoa da.

Nafarroakoa, Elizondoko

Nafarroan ere martxoan jokatu da txapelketako finala. Elizondoko pilotalekuan da hitzordua, martxoaren 28an. Otsailaren 7an hasi zen Nafarroako Bertsolari Txapelketa eta zortzi saio jokatu ondoren, finalarekin emango zaio amaiera aurtengoari.

17:00etan hasita finalurrekoetatik sailkatu diren zortzi bertsolarik hartuko dute parte Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean. Ohi bezala, final osteko afari batekin amaituko da eguna.

Kasu honetan, finalerako sarrerak ohiko bidetik erosi daitezke. Dagoeneko salgai daude www.bertsosarrerak.eus webgunean.



MAIALEN LUJANBIO
Donostia, 2015-I-31
Bertso Eguna

Gaia: Jolastu leike? Ez!

Ikastolako jolastokiak behar gintun aberastu baina askotan justizitik ta legetik horrek eskas du. Baldin bazera neskato edo dohai fisikoz eskatu herren bazabiltz edo ez bazera lider txikiakin nahastu baloi jabeak maite ez duna ezin liteke jolastu.

Beraz jabea bakarra da ta berak nahi duen bezela antolatzen da jolastokia ta antolatzen da gela. Besteak dira bere meneko ta bera da erregela gizarte hontan gertatzen zaigu jolastokian bezela. Zeinek esan zun umek helduak imitatzen dituztela?

Espazioa eta jokoa nahi degu geureganatu ta beste gisaz eta justiziu gure erara banatu. Baloi jabe den agintariak ez gaitzala gu manatu baloia ostu beharko zaio eta besteontzat hartu edo bestela baloirik gabe beste joku bat asmatu.

F.C.BAIMEA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xepelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / posta-e: komunikazioa@bertsozale.com

“Bertsolaritzaren historian emakumeen ahotsa isilean geratu da”

Bertsolaritzaren Sekretuak. Isilduriko emakumeen historia” ikuskizuna sortu eta ekoitzi du Gipuzkoako Bertsozale Elkartek. Otsailaren 15ean estreinatu zuten Hernanin eta horren ondotik hainbat emanaldi eskaini dituzte Korrika Kulturalaren barruan. Lankuren bitartez zabalduko dute ikuskizun hau.

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko eragilea da Eburne Soraluze Urretabizkaia eta hark eman dizkigu proiektu honen inguruko xehetasun guztiak.

Nondik sortu da bertsolaritzaren sekretuak proiektua?

Errenteriako Udaleko Berdintasunerako Kontseiluak antolatzen duen Mariasun Landa sarietan hasi zen dena. 2010ean “Emakumei begiradarik onena” modalitateko saria irabazi zuen Iñigo Legorburuk “Joxepa Antoni Aranberri Xenpelarren itzalpean argi-izpi bat” idazlanarekin.

Lan honek Joxepa Antoni Aranberriren bizitzan gehiago sakontzeko grina piztu zuen Errenterian. Horretarako, Elixabete Perez Gaztelurengana jo zuen Udalak eta bere bizitzaren aztarna guztiak bildu zituen lan batean.

Material horrekin Errenteriako Berdintasun Kontseiluak, Errenteriako Udalak, Gipuzkoako Bertsozale Elkartek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak “Xenpelar”-ri buruzko unitate didaktikoa sortu eta Errenteriako ikastetxeetan zabaldu zuten. Gainera, berari buruzko ikuskizuna prestatu eta Errenteriako Niessen aretoan gauzatu zen.

Azkenik, egindakoa Euskal Herrira zabaltzeko ideia Gipuzkoako Bertsozale Elkartean.

Zer nolako ikuskizuna da “Bertsolaritzaren sekretuak”?

Garai bateko emakume bertsolarien lana aitortzeko modua eta haien bertsuak ezagutarazteko ikuskizuna izan nahi du. Azken, finean emakume bertsolari haiei ahotsa eman eta gertatu denaz pentsarazi. Ikuskizunerako, ez ditugu denak sartu, XIX. mendean bat batean aritu ziren emakume bertsolariak aukeratu ditugu.

Nortzuk hartu dute parte egitasmoan?

Nerea Elustondok eta Jokin Labayenek gidioa egin dute eta, horri segika, lau dira talde gainean agertzen direnak. Jokin Labayenek berak narratzailearena egin du eta kokatuko gaitu garaian. Bertsolari horien bizipenak antzetzeko Oskar Estanga eta Hodei Unzueta ditugu. Hori guztia, Idoia Noble akordeoi jolearen musikarekin lagunduta dago. Horiez gain, beste jende askoren laguntza izan dugu ikuskizuna aurrera ateratzeko.

Izenburuak dioen moduan isilduriko emakumeen historia al da? Zergatik ez da ezaguna historia hori?

Gaur egunera bertsolaritzaren historiako hainbat izen, pasarte eta bertso iritsi dira. Denak edo ia gehienak gizonezkoak dira. Baina izan ziren emakumezkoak ere, eta ez gutxi. Alderdi hori ez zaigu kontatu, gordean geratu da, ahots hori isilean geratu da. Eta horrek eman beharko liguke zer pentsatua.

Gizartean, oro har, izan den ikuspegi bakarrak eraman gaitu ziurrenik hontara. Emakumeek historian egin duten lana ezkutatu eta isilarazi egin da sistematikoki, eta, gizartearen zati den neurrian, bertsolaritzan ere berbera gertatu da.

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteen ekimenez sortu da proiektua. Zerk bultzatu zaituzte halako abentura batean sartzen?

Bertsozale Elkartek aspaldi ekin zion gaia lantzeari. Gainera, Elkarteen zeregina da, besteak beste, bertsolaritzaren transmisio eta sustapen lana eta hor kokatzen da proiektu hau ere.

Orain arte emandako pausuekin, oraindik gordeak jarraitzen duten sekretuak azalera animatu nahi ditugu tokiko eragileak, nork bere herrian gordeta dituen altxorak azaleratuz. Emakume bertsolarien kasuan informazio bilketa lanaren falta sumatzen da.

2014ko urte amaieran, esaterako, XIX. mende hasierako emakumeen bertsuak aurkitu zituzten Asteasuko artxiboan. Horrelako zenbat sekretu daude gordeta Euskal Herriaren eta bertsolaritzaren historian?



Herriz herriz ibiliko da “Bertsolaritzaren sekretuak” ikuskizuna.//XDZ

Transmisioa bermatzea helburu, **martxan dira udako bertso-udalekuak**

Udara oraindik pixka bat urrun ikusten dugun arren, dagoeneko hasiak gara udako ekimenetan pentsatzen. Horien artean, dudarik gabe, bertso-udalekuak dira askok irrikaz espero dituztenak. Martxan da udalekuetan izena emateko epea, begirale, zuzendari, sukaldari zein haur eta gazteentzat.

17. ediziora ailegatuko dira aurten bertso-udalekuak. Ibilbide luze eta oparoa da urte hauetan guztietan egin dena. Urtero eskariak gora egin du eta gainera transmisioa bermatzea ere lortu dugu. Izan ere, garai batean haur gisa udalekuetan parte hartu zutenetako asko eta asko gaur bertso-udalekuetako begirale, sukaldari edota zuzendari dira. Transmisio lan horrek berezko nortasuna eman die bertso-udalekuei.

Bertso-udalekuetan bertso-eskoletako kideek edota bertsozaleak diren hurrek har dezakete parte, baita bertso mundura lehenengo aldiz hurbildu nahi duten guztiek ere. Hori bai, adin muga dago, 9 eta 18 urte bitarteko haur eta gaztetxoek bideratuta dago ekimena.

Hainbat helburu bete nahi ditugu bertso-udalekuen bitartez. Batetik, Euskal Herri osoko haur eta gaztetxoak elkartzeko balio

duen gunea da. Hori berez norberaren esperientzia aberasteko baliagarria da, baita euskalki diferenteak ezagutzeko ere.

Bertsoa da udalekuen muina, bertso mundu txiki bat sortzen da txanda bakoitzean. Bertsolariekin harreman zuzena izaten dute udalekuetan parte hartzen dutenek eta haiekin bertso saioak eta bestelako ekintzak egiten dituzte: elkarrizketak, jolasak...

Halaber, bertso udalekuek tokian tokiko herria eta herrialdea ezagutzeko balio dute. Herriko kultur eragileekin egin ohi da harremanean eta ekintza osagarri interesgarriak egiten dira haiekin batera.

Azkenik, hezkidetzeta eta kantagintza ere lantzen da txanda guztietan, horretarako dauden bi eragileren bitartez.



Bost txanda izangi dituzte aurten bertso-udalekuek.//XDZ

Aurtengo txandak eta izen-ematea

Uztailean eta abuztuan izango dira aurtengo bertso-udalekuak eta 5 herriotan egongo gara: Muxika (Bizkaia), Maule (Zuberoa), Orio (Gipuzkoa), Irañeta (Nafarroa) eta Zuhatza (Araba).

Begirale, sukaldari zein zuzendari gisa izena emateko epea zabalik dago martxoaren 16ra arte, eta 9 eta 18 urte bitarteko haur eta gaztetxoek izena emateko bi epe zabalduko ditugu.

Martxoaren 9tik 24ra bertso-eskoletako partaideek zein

Bertsozale Elkarteko bazkide diren gurasoen seme-alabek izango dute izena emateko aukera eta martxoaren 27tik apirilaren 13ra gainerako kideentzako zabalik egongo da.

Txanda osatzeko, maiatzaren 7a baino lehen emango zaie erantzuna izena eman duten guztiei. Apuntatzeko bi erataria egin daiteke matrikula: www.bertsozale.eus webgunearen bidez edo telefonoz, 943 69 41 29 telefonora deituta.



Puntua jarrita

GORKA AZKARATE

Zinez eskertzekoa duk hire keinua, Jokin. Gure bi herri hauek nekez izango dituk inoiz hire herria bezain euskaldunak, eta are gutxiago hemengo biztanleak hire herrikideak bezain bertsozaleak. Baina etengabeko inurri lanean, gure bidetxoa egin diagu urte hauetan guztietan, hori ukazina duk.

Martxoan Bertsoa bertso zikloa eta bere baitan antolatu izan dugun taldekako txapelketa dituk, ziur asko, ekitaldi entzutetsuenak, gure herriotako mugez harago ere ezagun egin direnak.

XXI. mendearen haseran, "gauzak egiteko gogoz" zegoen gazte andana elkartu gintuan gure bertso eskolan, eta bertso trama, bertso antzerki, zein parranda giroko bertso saio zenbaiten ostean hainbat ekintza ezberdin ziklo bakarrean bateratu eta Martxoan Bertsoa izeneko aterkiaren pean abian jartzea pentsatu genian.

Tartean huan, noski, taldekako txapelketa ere. Formularekin bete-betea asmatu genian: sekula bertsoan egin gabeko jende ugari oholztan, gitarra, danbor eta abarrez lagunduriko agur xeble eta umoretsuak, jendetza tabernetan... bi hitzetan esanda, erabateko arrakasta. Denborarekin Legazpira, Ezkio-Itsasora eta Gabiriara ere egin dik jauzi gure txapelketak, eta datuak hotz-hotzean aztertuz, broma gutxi: Martxoan Bertsoaren historian ehun bertsolari ezberdin aritu dituk kantuan, batzuk behin bakarrik eta beste batzuk urtero-urtero hutsik egin gabe...

Haserako aparraldiari eutsi eta zikloak ia bere horretan irau dik gaurdaino. 13. edizioa tajutzen ari gaituk uneotan. Garaiak aldatu dituk, ordea: kasete zintetan grabatzen genizkian saioak haseran eta orain bideo kamera digital modernoak, SMS-ak bidaltzetik whatsapp-aren garaira igaro gaituk ia oharkabea, tabernetan erre egiten genian lehen eta orain, berriz... Tira, gauza batzuk ez dituk aldatzen...

Denborak esango dik gure herriotako bertso mugimenduak zein norabide hartuko duen. Oinarria, behintzat, bazegok, gauza berriak probatzeko ere. Momentuz aurtengoaz gozatuko diagu, azkena balitz bezala, eta gero, gerokoak. Oholtzan ikusiko diagu elkar, Jokin!

Eta hik, Joseba Barandiaran Andueza jaun txit gorenak, ez al duk gure saltsan parte hartu behar? Hik badakik Martxoan Bertsoako txapela janztea zer den, badakianez! Haiek bai garaiak... Gure inguruko berri eman diat nik zutabe honetan, eta gustura entzungo genike Bilbo aldeko konturen bat edo beste, hi bezalako gipuzkoar peto-peto baten ahotik. Hirea duk hitza!

Koplak

Martxan da Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa

Otsailaren 20ean abiatu zen Ataunen Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketaren edizio berria. Idatzizko sariketan 234 ikastetxek eta norbanakok hartuko dute parte, osotara 18 urte bitarteko 1.035 parte-hartzailek. Bat-bateko txapelketa astebete beranduago hasi zen, Zumarragan. Horretan, 15 eta 18 urte bitarteko 27 bertsolari gazte arituko dira. Eskolartekoaren finala apirilaren 26ean izango da Irunen, Gipuzkoako Bertso-Eskolen Egunarekin batera.

Poto-Finixa



Teknologia berriak garatzen.

Bertsozale Elkartea

Bertsozale Elkartea, Ekkiren sustatzaile

Euskal Kulturgileen Kidegoa da Ekki, egile eskubideak kudeatzeko sortu berri den euskal agentzia. Euskal kulturako beste hainbat eragilerekin batera, Bertsozale Elkartea ere parte hartu du Ekkiren sorreran. Egile eskubideak modu "hurbilago, eraginkorrago eta gardenago" batez kudeatzeko asmoz sortu da agentzia berria. Hemendik aurrera kultur eragile eta sortzaileen lana izango da egitasmo berri hau edukiz betetzea.

Kontratazioak eta informazio gehiago:



Eneko Dorrnsoro-ren dokumentala